



# INTXAURRONDOA MUGIMENDU MUNIZIPALISTAREN MANIFESTU FUNDAZIONALA

Bilboko Areatzan, Iruñeko Gaztelu plazan, Euskal Herriko plazetan sustraitu ginen duela hamaika urte, tradizio municipalista luzea duen herrian, lur ongarratuan. Harrezkerotik hazi egin gara, sendotu, eta adarrak zabaldu ditugu euskal lurraldearen luze-zabalean.

Tuteratik Bilbora eta Oiondik Atharratzera. Zazpi herrialdek, izen eta abizen, adin, genero, jatorri kultural eta sexu aukera ezberdineko ia hiru milioi herritarrek osatzen dugu Euskal Herria deritzogun jendarte-komunitate hau.

Gaur, arriskuz beteriko garai ziurgabe honetan, EH Bilduko herrigileok Euskal Herria dugu helburu eta euskal herritarren mesedetan ari gara, esaten baino egiten, egiteko horren nolakotasunean jarriz arreta. Ez gaude itxaroan.

Euskal Herria ontzen ari gara, gure herri eta hiriak ingurune kapazitate bilakatzeko ahalginean. Instituzioetan eta eragile sozialetan gaudenok ingurune kapazitateak sustatzeko gaitasuna dugulako.

Ondo dakigu gure hasierako ezaugarri eta gaitasunen gainera, inguratzen gaituzten testuinguru eta gertakariak gure bizi-ibilbidea eta garapena erabat baldintzatzen dutela. Horregatik, ingurune bizigarriak sortzen saiatzen gara, pertsona guztientzako bizimodu duinak bermatzeko helburuarekin.

Ongizatearen neurria gutxien dutenen ongizateak ematen digu, eta bizimodu bizigarriak eraikitze beharrezkoak diren eremu guztiak hartzen ditugu aintzat, hala osasuna nola enplegua, hala hezkuntza nola kultura.

Ingurune kapazitantea intxaurra da.

**Mamia.** Intxaurrak badu mamia, erdian dagoena, jaten duguna, babestu beharreako: oinarrizko eskubideak eta zaurgarrienak diren pertsonen eta kolektiboen zaintza. Babesik handiena horrek behar du, eta hor azaleratzen diren premiek interpelatu egiten gaituzte, bortizki.

**Oskola:** intxaurraren mamia inguratzen duen lehen geruza. Oskola komunitate senak egiten du. Oinarrizko eskubide eta zaintzen osagarri da komunitatean txertatuta egotea, gutasun baten parte sentitzea eta gutasun horren parte gisa aitortua izatea. Sarri esaten dugunez, herri edo hiri bat ehun delikatu bat da, sare indartsu bihurtzen dena bertan bizi direnak euren inguruan gertatzen denarekin konprometitzen direnean.

**Azala. Intxaurraren bigarren geruza. Testuingurua. Bigarren geruza testuinguru bat sortzeaz arduratzen da, aurreko bi atalen garapena errazteko. Onuragarria izan behar da, lagungarria. Hiriaren antolakuntzaz ari gara, hain zuzen ere; bertan dugun mugikortasunaz, naturaz gozatzeko dugun gaitasunaz, arnasten dugun aireaz edota edaten dugun uraz; interakzioa erraztu, kohesioa sustatu eta oinarritzko bizi baldintzetara sarbidea ematen duten azpiegitura sozialak edota espazio fisiko partekatuak.**

**Intxaurrak adierazten du zer lehenesten dugun agendaren ikuspegitik, eta baita horrek berearekin dakarren udalgintza eredu: udalgintza herrigilea, instituzioak ematen digun boterea eta baliabideak herritarrekin eta eragileekin partekatzetik hasten dena. Agenda politiko propioa eraikitzeke gai den gobernantza eredu, eta egiteko moduaren nolakotasunean bereizten dena. Lidergo eredu berri bat:**

**Eragile eta herritarrekin harremana indartu eta elkarlanean jarduteko espazioak etengabe zabaltzen dituen.**

**Herritarren ekimenei, ekarpeni, proposamenei bide emateko baldintzak sortzen dituen.**

**Kohesioa lantzen duena: gutasuna, komunitate bakarra garenaren ideia.**

**Desberdinekin lan egiten duena: batzen gaituenaren gainean adostasunak bilatuz.**

**Lan egiteko eredu honek helburu etiko eta politiko bat du: haien burua subjektu politiko, ekonomiko eta kultural bezala duten herritarrek osatutako komunitate ahaldundu bat eraikitzea. Kolektibo anitzak sortzeko helburua ere badu, haien jarduna, ekarpena eta gure etorkizunen komunean eragiteko duten gaitasuna errekonozituta ikusiko dutenak.**

**Komuna denaren gaineko ardura partekatuaren pisua dugu sorbalden gainean, hala nola, horren gaineko kontzientzia. Gaitasun instituzionaletik harago doan gizartean eragiteko gaitasun bat bilatzen dugu: botere partekatu bat, batu egiten denean, eragin eta irismen biderkatzailea duena.**

**Aitortuko dugu hau guztia ez dela erraza, zorrotza da. Eta guk ere ez dugu beti asmatzen, baina gure ahaleginaren norabidea argia da. Are bizi dugun garaia ikusita: ziurgabetasuna beti egon da presente humanitatearen historian, baina ados egongo gara inoizko ziurgabetasunik handiena bizi dugula diogunean.**

**Itxaropena ez da itxarotea. Itxaropena eraiki egin behar da. Itxaropenak aktiboa izan behar du. Esperantza aktibo bat, ardura partekatuaren gainean eraikia. Botere sortzailea, botere kolektiboa, hain zuzen ere, gauzak ondo ateratzeko ahalmena duen botere bakarra.**

**Inoiz baino beharrezkoagoa da eta garaiz gaude. Gu prest gaude, eta munduko leku txiki hone-tatik, gure esku dagoen guztia egingo dugu gauzak ondo atera daitezen.**

**Euskal Herria behetik gora eraikitzen ari garen mugimendu municipalista gara, eta berdinen errepublika, Euskal Herria euskalduna, feminista, anitza, justua eta solidarioa dugu helburu.**

**Intxaurrondoa gara.**

**Eta harro gaude!**

**Euskaldunon hiri buruzagian, 2022ko maiatzaren 28an.**